



ARAUDIA

VI NAZIONALA

Amezketan, 2019ko urria



Araudi honek Euskal Herriko klub en arteko VI NAZIONALAREN garapen egokirako arlo funtzionalak azaltzen ditu, hala nola, pilotari, epaile, materiala, egutegi eta ordutegi dagokiena.

Araudi honetan biltzen ez diren arloetan, Euskadiko Pelota Federazioaren aplikatuko dira.

PILOTARIAK, MATERIALA, EPAILEAK

PILOTARIAK

Pilotarien akreditazioa: akreditatzeko era federazio lizentzia izango da. Partidu hasera aurretik, epaile nagusiak pilotarien lizentziak eskatuko dizkie bi klubetako delegatuei. Baita ere zein partidutan eta postutan jokatuko duen bakoitzak. Datu horiek ezin aldatuko dira behin epaileari eman eta saioa hasiz gero. Hala balitz, aldatu diren partiduak balio gabetako lirateke.

Federazio lizentzia euskarri fisikoan ez bada aurkezten, pilotariak edo delegatuak euskarri birtual batean edo Euskadi Pilota Federazioaren zerrenda homologatu baten bidez aurkez dezakete. Euskarri birtualizat hartuko da edozein gailu mugikor digitala, hala nola, smartphoneak, tabletak, e.a. Bata zein bestea izan, listadua edo gailu mugikorra, epaileak aktan adieraziko du.

Alineazio desegokia: pilotari batek beste klub bateko fitxa baldin badu edo aurretik epaileari adierazitako partidu edo postuan ez badu jokatzen, alineazio desegokizat hartuko da. Beraz, zesioak ez dira onartzen eta pilotariak ordezkatzen ari diren klubaren fitxa eduki beharko dute.

MATERIALA

Aurre fasean jokatzen diren partiduetako materiala ekitaldia hasi baino lehen aukeratuko da. Klub bakoitzak bi pilota aurkeztuko ditu, partidu bakoitzerako. Frontoiaren ezaugarri dagokiena eta jokua garapen egokia ahal bideratuko duena, jokua kondizionatu gabe ikusgarritasunaren onerako izango dena. Antolakuntzak espero du klubetako arduradunen iritzia zuzena izango dela, eta joku ona eta kiroltasuna nagusituko direla, hurrengo torneotan parte hartu ahal izateko kontutan hartuko den balore bat izango delarik.

Final zortzirenetako I eta II fasetan, final laurdenetan, final erditan eta finalean, **PILOTABIZI Pilotazaleen Elkarteak** jarriko du materiala.

EPAILEK

Aurre fasean, extean jokatzen duen klubak jarriko ditu, bai epaileak eta baita ekitaldiaren garapen egokirako behar diren gauza guztiak. Final zortzirenetako I eta II fasetan, final laurdenetan, final erditan eta finalean, **PILOTABIZI Pilotazaleen Elkarteak** jarriko ditu epaileak.

Aktak: Epaile lana bete behar duen aktak jasoko du, originala eta bi kopia, atal guztiak betez. Kopia, bat etxeko klubarentzat eta bestea bisitariarentzat izango dira eta originala epailearentzat. Etxean jokatu duen klubak bidaliko du akta, emailez



torneoclubspelota@gmail.com-era, ekitaldia jokatu ondorengo asteleheneko 14,00ak baino lehenago.

PILOTABIZI Pilotazaleen Elkarteak bere Web atarian adierazitako emaitzetan edo partiduetako beste edozein ataletan okerren bat antzematen badu edozein klubak, dagokion erreklamazioa jarri lezake.

EGUTEGIA, ORDUTEGIA ETA FRONTOIAK

AURRE FASEKO EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Izena ematen duten klubaren arabera, Aurre Fasean zein klubak parte hartu behar duten zozketa bidez erabakiko da.

Hau izango da kanporaketen haserako ordutegia:

- ostiraletan, 20:00-23:00 tartean.
- larunbatetan, 9:00-23:00 tartean.
- igandetan, 9:00-17:00 tartean.

Kanporaketa parte hartzen duten klubaren adostasunez, ostegunera aurreratu ahal izango da, beti ere hasera ordutegi honen barruan:

- ostegunetan, 18:00-22:00 tartean.
- ostiraletan, 18:00-20:00 tartean.

Etxean jokatzeko duen klubari dagokio partiduen eguna eta ordua jartzea eta **PILOTABIZI Pilotazaleen Elkarteari** adieraztea, kanporaketa jokatu behar den astearen astearteko 19,00ak aurretik. Adierazpena, torneoclubspelota@gmail.com helbide elektronikora bidaliko da. Telefonoz egindako adierazpenak ez du balioko.

Behin partidua jokatzeko eguna eta ordua erabakita, ezin izango dira aldatu, klubaren eskuetan ez dauden instalazioetako arrazoiak izan ezik. Aldaketa beharra azaltzeko, instalazioetako arduradunak sinatutako ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko da. Bisitari den klubari dagokio partiduen ordutegia ezagutzea, horretarako Torneoaren Web orria www.pilotabizi.com erabili ahal izango du.

Aurre Fasean ezin izango da egutegi aldaketarik egin. Beraz, horretarako ezarritako ordutegian jokatu beharko dira kanporaketak. Halabeharrezko arrazoi bategatik (elurra, frontoiaren ezasatuna, e.a.) ezinezkoa baldin bada kanporaketa jokatzeko, **PILOTABIZI Pilotazaleen Elkarteari** komunikatu behar zaio, eta honek adieraziko die klubei zein egunetan jokatu beharko den kanporaketa.

Final zortzirenetako I eta II fasetako, final laurdenetako, finalurreko eta finaleko egunak eta orduak aldatu ditzake Antolatzaileak, beti ere ekitaldiaren hobekuntzarako.

FRONTOIAK

Aurre Faseko kanporaketak jokatzeko frontoia, parte hartzen duten bi klubaren artean zozketa bidez aukeratu da, aurkezpen egunean egingo den zozketan.

Final zortzirenetako I eta II fasetako kanporaketak Idiazabalgo IGARONDO frontoian jokatu dira.

Finallaurdenak, Aurrefinalak eta Finala Zumarragako **BELOKI** frontoian jokatu dira.